

Kudeaketa politikak

ZORNOTZA LHII zentro publikoa da, eta bere inguruko ekoizpen- eta prestakuntza-sektorerako erreferente orientatzailea izan nahi du, lanbide-heziketako eskaintzak erraztuz eta eskura dituen giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatuz. Horretarako, bere estrategiaren funtsezko zati gisa definitu du bere politika, eta kudeaketa-sistemak hartu ditu erakundearen funtzionamendurako erreferentzia-eredutzat. Zentroak bere Kudeaketa Sistema Integratua (aurrerantzean, KSI) EFQMren Europako Kudeaketa Ereduaren, UNE-EN ISO 9.001 arauan oinarritutako kalitatea ziurtatzeko sistemaren eta UNE-EN ISO 14001 ingurumen-kudeaketako arauaren arabera definitu du.

Legezko baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen du.

Arreta berezia eskaintzen dio hizkuntza-politikari, eta bere lehentasunen artean dago ikasleen, irakasleen eta irakasle ez diren langileen artean benetako elebitasuna lortzea – Euskara/gaztelania –.

Ikastetxeak pribatutasun-politika bat hartu du bere jardueraren ondorioz lortzen diren datu pertsonalak tratatzeko. Datu horiek ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak kudeatzeko, administratzeko eta emateko ardura duten langileek tratatuko dituzte, haien segurtasunaz eta datu horien konfidentzialtasuna bermatzeaz arduratuz.

Gure ikastetxeak KSI hartu du hobekuntzarako jarduera-filosofiatzat, eta honako gidalerro hauekin identifikatzen da:

- ✓ Aldaketak onartzeko prestakuntza duten pertsonak. Bizkorrak egoera bakoitzera egokitzeko, pertsona berritzaileak, sortzaileak eta lankidetzakoak bizitza pertsonalean eta profesionalean
- ✓ Garapen jasangarria eta ingurumenaren babesa bultzatzea, GIHak zentroan integratuz eta ingurumen-kudeaketaren hiru printzipioak aplikatuz: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea.
- ✓ Ikastetxean edo haren izenean egiten diren jarduerak langileen segurtasunean eta osasunean eragindako kalteak prebenitzea.
- ✓ Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea alderdi guztietan: ikastetxearen antolaketan, langileen arloan eta barneko zein kanpoko komunikazioan.
- ✓ Erakundearen misioarekin, ikuspegiarekin eta estrategiekin bat etortzea, eta lankidetz-espazioak ezartzea erakundearen, lanbide-heziketako sistemaren eta produkzio-ingurunearen artean.
- ✓ Aldaketei aurre egiteko gaitasunak lortzera bideratutako metodologiak hartzea, pertsonen parte-hartze aktiboa eta gogoetatsua ahalbidetuz, sormena bultzatuz, ekintzailatza, talde-lana eta berrikuntza bultzatuz.

- ✓ Balioa ematea ikasleei, ikastetxeko langileei eta interes-taldee, informazioa emanez, orientatuz, haien ahotsa entzunez eta haien itxaropenak asetzen saiatuz, aukera-berdintasuna eta pertsonen diskriminaziorik eza bultzatuz.
- ✓ Irakaskuntza zehatz-mehatz planifikatzea, bizitza osoan zehar pertsonak kualifikatzeko eta birkualifikatzeko aukera pedagogikoak hartuz, eta, horretarako, malgutasuna erabiltzea ikaskuntza esanguratsuko edukiak eta esperientziak diseinatzean.
- ✓ Ikastetxeko pertsonen eta taldeen kudeaketa integrala eta iraunkorra ziurtatzea, eta pertsonen, ikastetxearen eta inguruko enpresei balioa gehitzea, beharren, itxaropenen eta aukeren bidez.
- ✓ Ikastetxean erabiltzen diren datu pertsonalen konfidentzialtasuna ziurtatzeko neurriak hartzea.


Jarraibide horiek honako prozesu eta proiektuen bidez hedatzen dira:

- KSIaren eraginkortasuna etengabe hobetzea, berau beharrezkoa den jardueretan.
- Gogobetetzearen aldizkako neurketa eta azterketa.
- Sistemaren berrikuspina eta prozesuen aldizkako eguneratzea.
- KSIren barneko eta kanpoko auditoriak.
- Euskara indartzeko neurriak kudeatzea, ikastetxeko bizitzan euskararen presentzia handitzeko.
- Irakasleak gaitasunak lortzera bideratutako metodologietan prestatzea.
- Ingurumena Hobetzeko Plana egitea.
- Pertsonen hobekuntza-aukerak hautematen eta neurriak ezartzen parte hartzea sustatuko duten komunikazio-sistemak ezartzea.

Era berean, jarraibide horiek urteroko planetan ere zabaltzen dira, helburuak formulatu eta betetzen direnetan. Helburu horiek, adierazleen bidez kuantifikatu eta neurtu ahal izatean, ikastetxeak izan behar duen kalitatearen xede izango dira. Horretarako, helburu horiek ea zenbateraino bete izan ote diren jakiteko, aldizka ebaluatu egingo dira.

Kalitatearen konpromisoak ikastetxeko antolakuntza osoari eragiten dio. Ikastetxeko pertsona guztiek onartzen dute konpromiso hori eta KSIen ezarritako baldintzak betetzeko duten erantzukizuna. Ikastetxeak erakunde berritzailea eta malgua izan behar du, erantzun arina emateko gaitasuna duena, eta sareen parte izan behar du, bai beste zentro batzuekin bai enpresekin, batera proiektuak garatzeko.

Jarduerak arrakastaz garatu ahal izateko, Ikastetxeko Zuzendaritzak beharrezkoak diren baliabideak jarri eta formazioa eskainiko du.



Zuzendaritza

